



2019ko ekaina

BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUNAREN EREMUAN IKERKETA ETA HAUSNARKETA LANA EGITEKO BEKA

Ziklotekak 5.000 euroko beka eskainiko du bizikleta bidezko mugikortasunaren inguruko ikerketa eta hausnarketa operatiboa sustatzeko. Deialdi bakoitzean egingo diren ikerketak bizikleta-mugikortasuneko agenteei zuzendutako argitalpen teknikoaren bilduma batean editatuko dira. Lehenengo deialdia uztailean egingo da eta hauexek izango dira aztergaiak: Gipuzkoako hiri barruko zein kanpoko txirindulari istripu-tasa (arrazoiak, larritasuna, azpierreregistroak, prebentzio-lerroak) edo bizikleten lapurretak Gipuzkoan (arrazoiak, larritasuna, lapurreten inpaktua bizikleta-erabileraren disuasio-faktore gisa, ekintza-planak). Beka hau aurrerapausoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak Ziklotekaren garapenerako duten lankidetzan.



DOKUMENTUEN AUKERAKETA

Gaur egun, 3.700 dokumentutik gora bilduta ditugu gure datu-basean. Jarraian duzue bildutako nobedade nagusien erreferentzia labur bat eta dokumentuen aukeraketa:



Segurtasuna bizikletan. Etnografia bat



Miren Urquijo

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 2019

Ikerketa honek, Gipuzkoan, bizikleta hiri-mailan erabiltzen dutenen segurtasun-pertzepzioa ebaluatzen du. Ikuspegi antropologikotik txirringularientzat bide-segurtasuna eragiten duten faktoreak, baldintzak, praktikak eta pertzepzioak aztertzen ditu.




Las batallas de la bici



James Longhurst
Katakarak. 2019

Hiri-garapeneko azkeneko mende eta erdian sortu den egoeran, bide publikoak bi lehiakideren bataila-eremu bihurtu dira: alde batetik automobilak ditugu, indartsuak eta ugariak, eta, bestetik, bizikletak, ahulak eta kopuru aldetik gutxiago. Kaleak eta errepideak guztionak direla kontuan harturik, James Longhurstek espazio publikoa eskuratzeko borrokak aztertzen ditu, XIX. mendetik gaur egun arte.



Reinas de la carretera

Pilar Tejera
Casiopea. 2018

Annie Londonberryk munduari bira eman zion bizikletan 1895. urtean eta liburu honetan azaltzen den emakumeetako bat da. Emakume sufragistak eta abentura-aitzindariak dedikatutako liburua da. Emakume haiek, bizikleta, motor edo automobilarekin euren erresistentzia probatu nahi izan zuten eta emakumearen berdintasunaren aldeko euren bataila propioa egitea lortu zuten.
ConBicik gomendatua.


La bici lo es todo. La búsqueda de la felicidad sobre dos ruedas



Robert Penn
Capitán Swing. 2018

Txirringularitzari eskainitako oda honek bizikletaz maiteminduta dagoen baten gogo bizia transmititzen du, modu azkar eta dibertigarrian. Txirringularitzari egiten zaion himnoa da, eta kontatzen diguna hauxe da: zergatik eragiten diegun pedalei eta makina soil honek nola seduzitzen dituen bai bizikleta erabiltzaileak, bai bizikletaren erabilera handiagoa defendatzen dutenak, hirian zein landa-eremuan.

ConBicik gomendatua.



Sin Prisas aldizkari-bilduma

ConBicik

ConBicik 1986. eta 2002. urteen artean argitaratu zuen aldizkaria, (37 zenbaki), sasoi hartan Espainian zegoen bizikleta-erabiltzaileen mugimenduaren jarduera, hausnarketa eta proposamen nagusiak jasotzen ditu.



El movimiento de defensa de la bicicleta en España (1980-1995) 

Ángel Yagüe Romo

Master amaierako lana. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea. Geografía eta Historia fakultatea. Unibertsitate arteko Masterra Historia garaikidean. 2015

Bizikletaren erabileraren aldeko lehenengo jarduera espezifikoak 70eko. hamarkadakoak dira; hasiberriak ziren erakunde ekologistetan eman ziren. 80ko eta 90eko hamarkadetan, mugimendu politiko eta hiritarrenen irakinaldiarekin bat eginez, hainbat erakundek sustatu eta aldarrikatu zuten bizikletaren erabilera garraio bide moduan. Espainiako hiri eta errepideen errealtatea ordurako beste herrialde batzuetan ohiko jardutea zenari gerturatu nahi zioten. Lan honen helburua mugimendu honen jatorriaren ikerketa soziokulturala da.

CICLOSFERA#29 

Udako Ciclosfera alea eskuragarri dago Ziklotekan; online ere irakur daiteke.

Amsterdamera bidaiatzen dugu, Big Data-n murgiltzen gara, den den egoera errepatatzen dugu edo Sprocket Man txirindulari heroia ezagutzen dugu... Bizikletagatik eta bizikleta-kulturagatik pasioaz betetako zenbakia, beti bezala.



Apropiaciones de la ciudad. Género y producción urbana: La reivindicación del derecho a la ciudad como práctica espacial

Koordinatzaileak: **Maria Gabriela Navas Perrone eta Muna Makhoul De La Garza**
Pol.lent Edicions. 2018

Lan honek irizpide eta asmodun begiradak eskaintzen dizkigu. Hainbat azterketa-kasu aurkeztu ditu, non boterearen espazio-konfigurazioari emakumeek nola egiten dioten aurre aztertzen den eta horrek zein modu berezian inpaktatzen duen hirian duten esperientzian. Horretarako, Henri Lefebvreri zor diogun “hiri-eskubidearen” eztabaida berreskuratu dute, “espazio-jardutea” zentzua aldarrikatuz, hau da, emakumeek euren egunerokotasunetik egituratzen dituzten erabileretan islatzen den dimentsioa aldarrikatuz. *ConBicik gomendatua.*



Caminar en la ciudad. Manual de movilidad peatonal 

Alfonso Sanz. Garceta. 2016

Azkeneko mende erdian hiriak pentsatu, eraiki eta erreformatzerako orduan ibilgailu motorizatuen premiak eta, bereziki, automobilenak, asetu nahi izan dira; albo batera utzi izan dira oinezkoak eta ez dira erreferentzia izan hiriaren espazio publikoa eta eskala diseinatzerako orduan. Lan honek prozesu horiek leheneratu nahi ditu, horrenbeste denboran galdutako ikuspegitik hiriak eta kaleak birpentsatzeko tresna tekniko, teoriko eta praktikoa eskainiz: oinezkoak espazio publikoan daude eta bertan erlazionatzen dira.

BIDEOAK

Ziklotekak bizikleta bidezko mugikortasunari lotutako bideoak ere biltzen ditu bere artxiboetan. Buletin honetan bildu ditugu Zaragoza eta Bartzelonako udalek 2017an egin zituzten 5 bideo hirian bizikleta bidezko desplazamenduetan bide-segurtasuna sustatzeko. Kapitulu bakoitzean aholku errazak ematen dira, bizikletaz ibiltzera ohituak ez daudenentzat.



ALBISTEAK

Donostiako Udalak Norbanako Mugikortasun Gailuen zirkulazio-baldintzak ezarri ditu



2018ko abenduan, gobernu-batzordeak, zirkulazio- eta aparkatzeko-baldintzak jarri zizkien hirian mugitzeko erabiltzen diren hainbat objektu berri.

Azkenaldian, ohikoa da, bizikleta bideetan eta espaloietan motorrik gabeko gailuak ikustea, hala nola, patineteak eta monopatinak. Indarrean dagoen araudiaren arabera ezin ditugu ibilgailutzat jo eta araudi berriarekin Norbanako Mugikortasun

tasun Gailu izenez ezagutzen dira. Horri norbanakoak mugitzeko ibilgailu motorizatu berri ugari gehitu behar zaizkio. Ohikoenak patinete elektrikoak eta monopatinak eta auto-orekarako monozikloak dira; horiei Norbanako Mugikortasun Ibilgailu deitu zaie.

Norbanako Mugikortasun Ibilgailuak. Ibilzteko baldintzak.

Donostian norbanako mugikortasun gailu eta ibilgailuen kategorizazioa



Ibilzteko Tokiak eta Baldintzak

Ezaugarriak eta Elementuak

Erauzkizunak

Eremuak

Nota Ibil

Aparkalekua

Zigorak

Liburuxka

Ezaugarriak eta Elementuak

EZALGARRIAK	0	1M	2M
Beharrezko abiadura (ibilgailuaren fika teknikoaren arabera)	-	≤ 25 km/h	-
Masa, gehienez	-	≤ 25 kg	Ez badu 1M taldeko arazurik bal bezalaxe
Zabalera, gehienez	≤ 0,7m	≤ 0,7m	≤ 0,7m
Luzera, gehienez	≤ 1,2m	≤ 1,2m	≤ 1,2m
Gehienez zirkulatu pertsona joan daitezke	1	1	1
ELEMENTUAK	0	1M	2M
Taximia	X	✓	✓
Frenatzeko sistema	X	✓	✓
Aurriko argia (zuria) eta atzekoa (gorria)	X	✓	✓

AGENDA

Velo-City 2019



Dublinen, ekainaren 25etik 28ra Velo-Cityren urteroko batzarra txirridularitzako erreferentzia da mundu mailan. Europako Txirridulari Federazioak antolatzen du eta txirridularitzaren inguruko hainbat alor hartzen ditu barne, besteak beste, azpiegitura kideak, bizikletaren inguruko berrikuntzak, segurtasuna bizikletan eta eremu honetan gertatzen ari diren aldaketa sozial eta kulturalak.




Europako Mugikortasun Astea



Irailaren 16tik 22ra Oinez ibili eta pedalei eragin segurtasunez! goiburuarekin ospatuko da Europako Mugikortasun Astea. Gai horrekin, Europar Batasunak, osasunarentzat, ingurumenarentzat eta gure ekonomiarentzat mugitzeko bi modu horiek zein onak diren azpimarratu nahi du.





Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunean espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa
Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia
Asteleheneretik larunbatera: 09:30 - 13:30 / 15:00 - 20:00 (neguan 19:00ak arte)
Igande eta jai-egunak: 10:00 - 13:30.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Movilidad
y Ordenación del Territorio

